

EUSKAL ESKOLAKO BAKEA

Eskola mundua be aspaldion ez dabil baketsu. Eskal Eskolaren Lege proiektua berealaxe izango da eztabaidatua Legebiltzarrean. Lege proiektu ori dala-ta, entzun dira entzutekoak. Euskadiko Eleizak be jaso dau bere abotsa. Ta ondo jasota gainera. Eskola arazoa ez da txantxetakoa. Eziketaren arazoaren aurrean, Eleizak ezin dau egalperrarena egin. Ta gitxiago oraindino, giza eskubideak sartzen badira jokoan.

Orixe izan da Euskadiko gotzainen asmo bakarra. Arriskuan dagozan oinarrizko eskubide batzuk gogoratu. Ez dago bakerik giza eskubideak zapuztuta. Ez da arritzekoa ba, gure gotzainak kezkatuta agertzea Euskal Eskolaren Lege proiektu barriaren aurrean. Gotzainen asmoa «egiazkoa eta iraunkorra izango dan eskolako bakea» lortzea da. Ori bai, «zuzenbidearen balioetan oinarrituta, Eskolari buruzko Itzarmenaren bidetik eta Euskal Eskola Publikoaren Lege zuzen eta egoki baten laguntzarekin».

Pluraltasunik eza

Euskal Eskolaren Lege proiektuaren utsunik kezkarrienetarikoa pluraltasunik eza dogu. Administrazioak «monopolio gisa» artzen ditu eziketako eskubideak. Egiazko gizarte demokrazi baten, ezin leike onartu olako gauzarik. Bai oster,

diktaduraz jositako gizartean. Historira begiratzea baino ez daukagu.

Lege proiektu barri orretan, eskola pribatuak ez dauke lekurik. Edo kasu onenean, apurka-apurka baztertuta geratuko dira. Eskola pribatuak «izan bear dabe euren lekua eziketa sisteman; eta ez eskola ofizialen osagarri uts bezala, oneek bear diran beste ez diralako; eurei dagokien eskubidez baino». Ez jakee arrazoirik falta euskal gotzainei.

Ez da naikoa giza eskubideak teoriz defendatzea. Eskola pribatuak diru laguntza barik pikutara doaz. Orrela gurasoen eta ikasleen eskubideak lañutan geratzen dira. Ikastetxeen aukera-eskubidea kateatuta geratuko litzake. Lege proiektu barri onetan, ez da, inondik inora, ikastetxea askatasunez gurasoak eta tutoreak dauken eskubidea benetan zaintzen. Azken baten, Lege au gurasoen eta ikasleen kaltetan dator. Praktikan ez ditu gurasoen eta ikasleen eskubideak onartzen. Ta ori egiazko demokrazian ezin leike iruntsi.

. Ona emen, argi eta garbi, gotzainen berbak: «Ez litzake arrazoizkoa izango, Eskola Publikoaren plangintza gizarte ekinbidezko ikastetxeen egiazko eskeintza dala aaztuz egitea, eta ez leuke irakaskuntza alorreko aukera-askatasunaren eskubidea errespetatuko be. Gainera ez leuke inolako zentzurik izango, gizarte ekinbidezko ikastetxeen aukera-askatasunaren eskubideari zor jakon errespetua eskatzeak, baliabideen bearrezko eskakizunak aztuten badira (...) Irakaskuntzaren askatasuna ez da, ofizialak ez diran beste ikastetxeak eraiki al izateko askatasun utsa. Ikastetxe horreen aukera egiteko eskubidea ere izan bear dau, aukera ori dala medio bazterketarik edota ekonomi kalterik jasan bear izan barik, ikastetxe oneek eginkizun soziala beteten badabe, au da, gurasoen edota ikasleen legezko aukerari erantzuten badautsoe, gizartearen bearretara zabalik badagoz eta heziketa sistemak eskatzen daben eziketa maila ona eskaintzeko gai badira».

Au da berba klaru egitea. Ezin leikena da, ikastetxe publikoak diru guztiak jatea. Eta beste eskolak or konpon! Batak eta besteak gizarteari egiten dautsoen zerbitzua kontuan artu barik. Lege proiektu au, kontzientziaren askatasunaren eskubideak zaintzen ez da asko alegindu. Ezta justiziaren eskubideak be. Badauko zetan mejourau premina. Proiektu onek ez dautso inondik inora be, euskal gizarteari objetibozki erantzunik emoten. Beste mundu bateko arazoei begira dagola dirudi. Baina ez euskal gizarteari.

Beste arazo sakon bat

Euskal Eskolaren Lege proiektu barri onek, badau beste kezka sakon bat be. Erlijio irakaskuntza Euskal Eskola Publikoan. Itzelezko anka sartzea izan dau arazo onetan be. Ez dau izan bildurrik gizonok daukagun eskubiderik ederrena zapaltzeko. Non bizi gara? Ainbeste denporan demokraziari itxaroten ta orain giza eskubiderik baliotsuenak zapuzteko? Lau ankako piztien antzera nai gaitue erabili. Gauza ederretara, au da, biotz barneko gogo eta asmo sakonak asetzen dabezan traszende atziara begiratzerik ez dago proiektu onetan.

Ta ori gitxi balitz, pertsonen eskubiderik barnekoiena oinperatuta. Giza Eskubideen Unibertsal Deklarazioak diñoanez: «Pertsona orok dau, pentsamolde, kontzientzia eta erlijio askatasunerako eskubidea; eskubide onek baitan artzen dau, bai erlijioz edo sinismenez aldatzeko eskubidea, bai erlijio edo sinismen orreek, bakarka edo kolektiboki adierazteko eskubidea, ala jendaurrean, nola pribatuki, irakaskuntza, praktika, kultur eta betetzearen bitzez» (18). Bigarren gerra mundiala amaitu ondoren onartuko giza eskubidea dogu berau. Nazio Batuen Elkargoan, au da, ONU, ain zuzen.

Urteak igaro dira ta emengo jauntxoak enterau bere ez. Badago kontzientzi askatasuna errespetatu bearra gure artean. Ikastetxe guztietan bete bear da giza eskubide ori. Euskal Eskolaren Lege proiektuaren arabera, gertatu leike, ikastetxe

batzuetan erlijioa irakastea debekatzea. Bertako arduradunak orixe erabakitzen dabelako. Ta orretarako ez dago eskubiderik. Bertanbera geratzen dira gurasoen eta ikasleen eskubideak, naizta oneek gitxiengo egoeran egon.

Euskadiko gotzainek sendo diardue: «Gai au barriro aztertua eta zuzendua izan dadilla eskatzera ausartzen gara, oinarri arturik: gizarte aske eta demokratikoaren printzipio nagusiak, indarrean dagoen lege araudia eta nazioarteko maillakoak diran akordioen indarra. Elizak Euskal Errian ezin dau ontzat emon, lortu nai dan eskolako bakea eskuratzeko tresna on bezala, eskolako erlijio eziketa izateko eskubidea -guraso eta irakasleen legezko aukerabideen arabera erabilitako eskubidea- zapaltzen daben legea».

Eta beste arazo bat be gogoratzen dabe gotzainak: len maillako eta OHOkoko ikasgeletan erlijio katolikuaren irakasle diranen zuzenbidezko sariketa. Arazo au ez dago oraindino konponduta, ez Estatu maillan, ezta Autonomi maillan be.

Dei bereziak

Gure gotzainen pastoral idazkia iru dei larri eta urdurikin amaitzen da. Lenengoa eleiztarrei. Bigarrena ikastetxe publiko naiz pribatuetako ikasleen gurasoei. Eta irugarrena, Administrazio berari.

-«Dei berezia egiten dautsegu Elizarekin lotura zuzenagoa dauken taldeei, parte artu dagiela Irakaskuntzari buruzko eztabaida onetan, beti ere biotz andiaz: euren ekintzen irizpide nagusi eta argiemoillea Jesusen Ebanjelioan eta beartsuenganako Jesusen ardura aurkitu nai dabenari dagokion biotz andiaz. Begirada jarriz, ez bakarrik bidezkoak diran norberaren eskubide eta interesak babestean, baizik eta batez ere bakea iristeko giro iraunkorra lortzean, eziera-lana ere onean eta baretsu egiteko».

-«Ikastetxe publiko naiz pribatuetako ikasleen gurasoei biziki eskatzen dautsegu, eziera alorrean daukezan eskubideen ardura

izan dagiela, euren ekintza bakarko eta alkartuaren bidez. Izan ere, eskubide orreen aitormen egiazkoan oinarritu bear dau, bai eziera sistemaren, bai eskolako bakearen zuzenbideak eta sendotasunak».

-«Erri administrazioari eskatzen dautsogu, bere erabakiak artzekoan, saia dadilla gizarte alorreko eskariei zor jaken arreta zuzen erabiltzetik datorren sozial onarpena ere izaten. Askatasunean eta danak esku artuz, mailla oneko eziera sistema lortzeko egingo diren alegin guztiak gitxi izango dira, or jokoan dagozan gizarteko interesekin parekaturik».

Bake bideak eskeintzen datoz Euskadiko gotzainak. Ta orretarako oinarritzko giza eskubideen urratsetatik diardue. Azken baten euron gogo bizi bakarra «egiazko giza balioekin loturik biziko diran pertsonak ezitzea, gizakiari dagokion eziera oso eta baten bidez». Eskertzekoa da Euskal Eskolaren Lege proiektuari jarri dautsoezan kezkek eta mejorak.

Andoni Olea